

BAPOREA
BILDUMA

KATAGORRIA ETA HAREN LAGUNAK BILDUMA


Beldurra? Ez horixe!


Begoña Oro

Irudiak:
Dani Montero



sm ikasmina





BAPOREA
BILDUMA

Beldurra? Ez horixe!

Begoña Oro



Irudiak: Dani Montero

sm ikasmina

Edizio exekutiboa: Paloma Jover
Argitalpen-zuzendaritza: Paloma Muiña
Argitalpen-berrikuspena: Carolina Pérez
Koordinazio grafikoa: Lara Peces
Hizkuntza-aholkularitza: Juan Luis Zabala (Bakun S.L.)

© testuarena: Begoña Oro, 2014
© irudiena: Dani Montero, 2014
© Ikasmina Argitaletxea, 2016
Poligono Kareaga Goikoa, Junkeral Kalea, 13 M16
48903 Barakaldo (Bizkaia)

BEZEROENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA
Tel.: 902 121 323 / 912 080 403
Helbide elektronikoa: clientes@grupo-sm.com

ISBN: 978-84-9855-523-3
Lege-gordailua: M-24233-2016
EBn inprimatua / *Printed in EU*

Titularraren baimenik gabe, debekatuta dago
lan hau birsortzea, banatzea, publikoki hedatzea
edota eraldatzea, Legeak aurreikusitako salbuespenetan
izan ezik. Jo CEDROa (Eskubide Erreprografikoen
Espainiako Zentroa, www.cedro.org) lan honen zatiren bat
fotokopiatzeko edo eskaneatzeko beharra baduzu.

*Luis Oro Arévalori;
ez dio ezeri beldurrik,
gauzaren bati salbu.*



Kaixo!
Elisa naiz. Eta
hona hemen...

KATAGORRIA ETA HAREN LAGUNAK

NORA

Nora lotsatia da.
Oso **maiteak ditu** natura,
gauza ederrak,
amonaren ipuinak
eta **liburuak**.



AITOR

Aitorri ere gustatzen
zaizkio **liburuak**, musika...
eta abenturazalea da.
Batzuetan, kapelaren
barrutik bertso-lerroak
ateratzen ditu. Aitor **urduria**
baita, eta erdi poeta ere bai.

IRENE

Irene Aitor bezain
urduria da... eta oso
azkarra. Irene izugarri azkarra da
maite dituen gauza guztietan:
batuketetan eta futboleant. Baina
kirolari azkarrek ere lasaitasuna
behar dute noizean behin.



ISMAEL

Ismael oso aditua da
lasaitasunari eusten,
karamelu makiladunak
jaten, pintatzen eta
lagunak egiten!
A! Batzuetan
(askotan) gauzak
ahazten zaizkio.



RASI



Eta ni?
Inork ez
al du nitaz
hitz egingo?

Elisaren gelan bilduta zeuden
denak: Nora, Aitor, Ismael, Irene...





Eta ni?

Eta Rasi, jakina.

Haren buru txikia kapelaren gainetik
ageri zen, lore baten antzera.

–Loreontzi bat ematen du –ohartu
zen Nora.



–Rasi, bakarrik utzi zaituzte eta sustraiak
atera zaizkizu, ala? –galdetu zion txantxetan
Aitorrek.



–Nik bai utziko zaituztedala bakarrik!
Gelako pertsiana puskatu da
–azaldu zuen Elisak pertsiana
itxia seinalatuz–. Konpontzeko
materiala eroatera joan
behar dut.



–Ez kezkatu, Elisa –esan zuen Ismaelek–.
Guk zainduko dugu Rasi.
Atea itxi eta joan egin zen Elisa.



–Zer egingo dugu? –galdetu zuen
Irenek.

–Mozorrotuko gara? –Ismaelek.

«Eta ezkutaketan jolasten bagara?»,
pentsatu zuen Rasik.

–Eta beldurrezko istorioak kontatzen
baditugu? –proposatu zuen Aitorrek.

